



ALEA

arabako aldizkaria



OSTATU BERRIAK ARABAN

**LANDA EREMUA,
AMETS GAZTEEN ATERPE**

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

ONGI
ETORRI!



SASKIBALOIKO EUROLIGAREN
FINAL FOUR

MAIATZAK 17 > 19

+info+: vitoria-gasteiz.org/vgbasketcapital



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ALEA 193

2019-05-17 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE
ARKAUTE

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Bi aterpetxe zabaldu berri dituzte, Kanpezun eta Manzanosen.
- 8 **Protagonista.** Iban Zaldua idazlea.
- 12 **Iritzia.** Itziar Rekalde, 'Kontutxo bat'.
- 14 **Sarean.** #AndoniPescatero
- 15 **Iruditzen.** Kale gorrian, etxebizitza eskubidearen alde.
- 16 **Ekonomia.** Igor Gebara: "Inposaketan ari da Mercedes".
- 18 **Gizarte.** Etxeko langileen %40 etorkina da.
- 20 **Ekonomia.** Iñigo Leza, AHTrik Ez Araba.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Dulantzin ospatuko da larunbatean Musikaldi.
- 25 **Kultura.** Ekainaren 7an hasiko da Kaldearte.
- 27 **Zinema.** 'Vitoria, 3 de marzo', Zigor Etxebeste.
- 28 **Gure bazterrak.** Gebara.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Rekalde, Zigor Etxebeste.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Herriak biziberritzeko gazte ekimenak

Pare bat ostatu-taberna zabaldu dituzte Araban azken hilabetean, Santikurutze Kanpezun bat eta Manzanosen beste bat; ezaugarri desberdinak dituzten arren, komunean dute landa-eremuan lan eta bizi nahi duen jende gaztearen ahaleginari eta gogoari esker martxan jarri direla.

Testua eta argazkiak: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

Zaila da herrietan bizitzeko eta lan egiteko aukera izatea, eta are gehiago familiarengandik nekazaritza lurak edo abere aziendak oinordetzan jaso ez dituzten gazteentzat. Hala ere, badira hiriburuaren erakargarritasunaren aurrean, herri txikien bizimoduaren alde egin eta haien bizi-proiektua landa-eremuan garatzea erabakitzen dutenak. Horientzat etxebizitza eta lana aurkitzeko trabak dira arazo nagusiak; inbertsio ekonomiko handirik egiteko asmorik edo gaitasunik ez badute, herrietan kokatzeko arazoak biderkatu egiten dira.

Nolanahi ere, eta arau guztietan salbuespenak daudelako, apirilaz geroztik, gazte ekintzaileen ekimenez, bi proiektu jarri dituzte martxan, bat Kanpezun eta beste bat Manzanosen. Hala, Ibernaloiko ermitaren ondoan dagoen aterpetxea zabaldu berri dute, urtebete luzez itxita egon ondoren. Gorka Lopez Callejak eta Javier Angel Gonzalezek, gainera, aterpearekin batera taberna eta jatetxea jarri dute martxan. Manzanosen, berriz, landetxea, taberna eta denda txiki bat gobernatzen dituzte apirilaren 14tik Zanbranako Ainhoa Pereyrak eta Gaizka Bracerasek.

Oso antzeko proiektuak dira biak, baina bakoitzak izaera propioa du. Biek dituzte komunean jabeek landa eremuaren eta lasaitasunaren alde egin duten apustua, baita aurrera egiteko duten gogoia ere. Gainera, bien kasuan tokiko administrazioen menpe







Ibernalo aterpetxea

Santikurutz Kanpezun dago; sei gela bikoitz ditu eta bat lau lagunentzat. Logela guztiek bainugela osoa dute. *Ibernololandetxe.com*



Manzanosko aterpetxea

Manzanosen dago; bi gela ditu eta 7-8 lagunentzako tokia. Behar den guztiaekin ekipatutako sukaldea, jangela eta egongela ditu. *Manzanos.eus*

–Kanpezuko Udala eta Manzanosko Batzar Administrazioa–
dauden azpiegiturak baliatu ahal izan dituzte, inbertsio handiegia
egin gabe, negozioak martxan jartzeko.

Idazle mendizale bat izaren artean

Ibernalo inguruko paraje ederrean, ermitara atxikita daude aterpetxea eta taberna, eta bertako sukaldean dabil lanean goizeko lehen ordutik Gorka Lopez. Idazle mendizalea da Lopez, baita argazkilaria ere; azken hamabost urteetan bidaletan, mendi-ibilietan eta kartografian espezializatutako argitaletxeekin hogeitik gora mapa argitaratu ditu, dozena bat liburu eta ehunetik gora erreportaje. Halere, duela bi urte geldiuene bat egitea erabaki zuen; urtean zortzi hilabetez Pirinioetan lanean egoteak kostu handiegia zuela sentitzen zuen, eta familiarekin eta seme-alaba txikiekin egoteko denbora behar zuen. "Maeztun bizi gara, eta azken bi urte hauetan hemen izan naiz, umeak zaintzen eta buruari bueltak ematen ea non birkokatu nintekeen".

Aitarekin solasean sortu zen egungo asmoa. "Ostalaritza negozio bat martxan jartzea otu zitzaidan, oinarri ekonomiko bat izateko, eta, modu horretan, beste jarduera batzuk sustatu ahal izateko mendiarekin eta ingurunearekin lotuta". Eta, hain justu, abenduan Ibernalo aterpetxea lizitazioan atera zuen Kanpezuko Udalak. Lopezek eta Gonzalezek proiektu bat aurkeztu zuten aterpea kudeatzeko, eta emakida lortu dute hurrengo bost urteetarako.

Hiru hilabetez lokala txukuntzen egon eta gero, ateak zabaldu zituzten iragan apirilaren 5ean, eta berehala zabaldu zen berria inguruan. "Jende-olde bat jaso dugu eta oso pozik joan dira guztiak. Dagoeneko baditugu herriko zaharren kuadrillak partida jokatzera etortzen direnak, eta kanpotik ere etorri dira lo egitera mendizaleak eta txirrindulariak".

Eraikinak taberna-jatetxea eta zazpi gelako aterpea du, hamasei lagunentzat. Jabe berrien lehen apustua tabernaren ordutegia luzatzea izan da. "Urteko egun guztiak zabalik dago, goizeko hamarretatik gaueko hamarrak arte; asteburuetan luzatuko dugu pixka bat, baina atsedenerako tokia da, eta jendea konturatu behar da goizaldean terrazan kubatak hartzeko ohitura amaitu dela". Ez dituzte menuak ematen, baina "beti egongo da zerbait jateko".

Aterpeari dagokionez, Lopezek nabarmendu du Kanpezun eta inguruan dagoen lo egiteko toki bakarra dela Ibernalo, eta aukera ona ikusten du negozioa aurrera ateratzeko.

Dena den, Ibernalo proiektuak badu bigarren zutabe bat, naturarekin eta mendizaleasunarekin lotuta. "Lasaitasunarekin, naturarekin eta mendiekin lotutako turismoa erakarri nahi dugu, eta arlo horretan gauzak diseinatzen ari gara ibilbide berdearen inguruan, adibidez; gainera, lau eguneko ibilbide bat prestatu dugu hemendik Urbasara eta hortik Maeztura eta Lagranera joateko. Nik zonalde hau oso ondo ezagutzen dut, goitik behera kartografiatu baitut", esan du Lopezek.

Denborarekin, halaber, Mendialdeko eskola-umeentzat ere natura eskolak martxan jarri nahi dituzte ikasturtean zehar, baita kultura jarduerak antolatu ere, baina une honetan ostalaritzak jaten dizkie eguneko ordu guztiak eta indarrak.

Lopezen hitzetan, ez da apustu erraza izan herrian finkatzea, eta administrazioen aldetik ere ez du ikusten herrien despopulatzea ekiditeko politika eraginkorrek sustatzen ari direnik.

"Gauzak aldrebes egiten ari dira, ez dago alokairuzko etxebizitzarik eta ez dago lanik. Lehenik eta behin lana ematen duen foku bat jarri behar da, eta hortik aurrera pentsatu beharko duzu non biziko diren pertsona horiek. Zentzurik ez duena da Gasteiztik hona lan egitera etortzeak, eta berdin hemengo jende gehienak Gasteizera lanera joan behar izatea".

Hego Amerikatik Manzanosera

Herrian bizi eta lan egiteko erronkari eutsi diote ere Ainhoa Pereyra madrildarrak eta Gaizka Bracerak bizkaitarrak, eta gogo handiz hartu dute Manzanosko Batzar Administratiboak lizitatu dituen taberna, denda eta aterpetxea gobernatzeko ardura. Iragan urteko ekainean Zanbranara bizitzera joan zen bikotea, Hego Amerikan zazpi urtez bizi ondoren. Braceroren ama bertakoa da eta etxe txiki bat zuten herrian, baina lanik ez.

Itzuli zirenean lan aukerak aztertu zituzten, baina hasieratik oso garbi zuten herrian bizi eta landa-eremuan lan egin nahi zutela, eta bilaketa konplikatu zitzaien horregatik. Pereyrak azaldu duenez, landetxe bat edo aterpe bat jartzeko asmoa zuten, "baina aurrekontuak ez zuen ematen, guretzat gehiegizko inbertsioa zen. Denda txiki bat, ogi denda bat... aukera desberdinak aztertu genituen baina ekonomikoki ezin genion eutsi horri". Añanako Garapen Agentzian ere egon ziren informazio eske, baina inbertsioa aurreratu behar zuten diru-laguntzak eskatu ahal izateko, eta ez zuten bideragarria ikusten.

Bikotea zer egin jakin gabe zegoen ataka horretan, internet bidez topatu zuten Manzanos herrian taberna, denda eta aterpea hartzeko eskaintza. Taberna otsailean inauguratu zuten, eta horrela martxan jarri zuten negozioa; udaberrian zabaldu zituzten denda txiki bat oinarritzko produktuekin eta tokiko elikagaiekin, eta aterpea herriko goiko aldean. "Gure asmoa da lasaitasunez lan egitea, bizitzeko adina diru izatea, eta kito, eta nekazaritza eremua bultzatzea", esan du Pereyrak.

Manzanosko Batzar Administratiboa pozik dago, zerbitzu berriak dituztelako herrian, eta bi lanpostu sortu direlako. Javier Argote presidenteak azaldu duenez, orain dela zortzi urte hasi zen kontzejua herriko labea birgaitzeko eta aterpea bilakatzeko lanean. Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioaren diru-laguntzak jaso dituzte, eta Kontzejuen Elkarteko aholkularitza denda txikia irekitzeko, baina bidea latza izan da. Negozioa eramango duen jendea aurkitzea ere zaila izan da, "baina bikotea aukeran etorri da". ■



Gorka Lopez Ibernaloko aterpetxearen eguneroko jardunaz arduratzen da orain, Pirinioetan lanean hamabost urte luzez ibili ondoren.

Lehen orriko argazkian, Ainhoa Pereyra Manzanos herriko aterpetxearen egongelan dagoen labe zaharraren ondoan.

"EZ DU ZENTZURIK HEMENGO JENDE GEHIENA GASTEIZERA LANERA JOAN BEHAR IZATEAK"

GORKA LOPEZ

"LASAITASUNEZ LAN EGIN NAHI DUGU, BIZITZEKO ADINA DIRU IZAN NAHI DUGU ETA KITO"

AINHOA PEREYRA

"Fikzioaren bidez, era zintzoagoan konta daitezke gauzak"

IBAN ZALDUA IDAZLEA

Joni Ubeda kazetariak Iban Zaldua idazlea elkarrizketatu du Ttap euskarazko aldizkari digital interaktiboan. Liburu berria argitaratu du, 'Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak' (Elkar); ipuin bildumaz gain, irakurzaletasunaz, musikaz eta antimilitarismoaz zabal hitz egin du, beste gai askoren artean. Testua: **Joni Ubeda, Ttap. Argazkiak: Goiena.**

Irakurtzea gogoko baduzu, Iban Zaldua da euskal letretako erreferentziazko ipuingileetako bat. Liburu berria argitaratu du: *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak* (Elkar). Musika gustuko baduzu, jar zaitez berarekin harremanetan. Ondorengo lerroetan Ttap aldizkari digitalaren 29. zenbakirako egindako elkarrizketaren zati bat jaso du ALEAk.

Gaur egun, panorama zailean daude herrietako liburu-dendak. Geroz eta gehiago desagertzen ari direlako.. Liburu-denda plazererako lekua iruditu zait beti. Irakurriko duzunaren, erosiko duzunaren antizipazioa; batzuetan, ondoren lortzen duzuna baino hobe dena. Aipatu duzuna tragikoa iruditzen zait niri, ez bakarrik herri txikiengan. Gasteiz bezalako hirietan ere gustu oneko eta aukera ona eskaintzen duten liburu-denda txikiak desagertzen ari dira. Hori guztia disko-dendekin ezagutu dugu. Eta hori, niretzat, tragedia bat izan da. Beraz, aurreikusi dezaket zer izan daitekeen. Kapitalismoaren legea da, suntsipen sortzaile hori. Jarraituko dugu liburuak irakurtzen eta musika entzuten jarraituko dugu. Baina ez era berean.

Musika aipatu duzu. Nik ez zaitut zu idazle bezala ikusten. Musikazale amorratua zara. Zurekin eta Pello Lizarralderekin gauza bera gertatzen zait, jakinduria ikaragarria duzuela musika kontuetan. Musika kontsumitzaile konpultsibo horietakoa al zara?

Gaztetandik naiz musika kontsumitzaile amorratua. Eta ez hori bakarrik, *konpletista* naiz. Gustuko ditudan kantarien ahalik eta erreferentzia gehien izaten ahalegintzen naiz. CDaren garaia harrapatu nuen eta CDak erosten jarraitzen dut. Pello Lizarralderekin egon naizenetan oso ondo konpondu gara eta hitz egin dugun gaietako bat musika izan da. Gogoan dut azken aldian Lloyd Coleri buruz hizketan aritu ginela. Zineman jakinduria askoz handiagoa duela iruditzen zait, eta hor, berarekin eztabaidatzeko gaitasunik gabe sentitzen naiz. Zineman bere aldetik aholkuak jasotzen ditut.

Musika, zinema, literatura,.. idazlea zara, baina idazle bakarrik? Nola definitu beharko zaitugu?

Idazlea naiz, zalantzarik gabe. Borges en apalkean erori gabe, nire burua irakurle on bat bezala daukat. Gil de Biedmak esaten zuen naturalena edo normalena irakurtzea dela, eta idazteko garaian zerbait derrigortzen ari zarela dio. Baina,



Zarauzko Garoa liburu-dendan izan da elkarrizketa.

idazleaz gain, irakaslea ere banaiz. Historia Ekonomikoa ematen dut unibertsitatean (EHU). Ikasleek ezagutzen ez dituzten gauzak ezagutaraztea eta zalantzak sorraraztea dut gustuko.

Eta Rock Deluxen agertu zara! Lehen, behintzat, hor agertzea oso cool zen.

Gaztelaniazko lanaren inguruko iruzkin bat zegoen bertan, eta ikustean emozionatu egin nintzen. Hau izango da *rock star* bat izateko hurbilen iritsi naizen uneetako bat. Oso aldizkari *snoob*-a da; beraz, oso gogoko dudana aldizkaria da. Izan ere, nire komuneko irakurgai nagusietakoa da. Bertan agertzen diren artikulua eta elkarrizketak eserialdi batean irakurtzeko modukoak baitira. Niretzako, oso kuttuna da.

Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak ipuin bilduma bat da. Beste batzuetan baino gehiago jo omen duzu fikziora. Aurkezpenean, Rutu Modan komikilariaren erreferentzia aipatu zenuen. Esplikatu al zenuke berriro?

Rutu Modan komikilari israeldarra da eta berak, fikzioaren bidez, gauzak modu zintzoagoan kontatzea posible dela dio. Berari askotan galdetzen omen zioten ea zergatik ez zuen modan

dagoen erreportaje moduko nobela grafikoa egiten, Joe Saccok egiten duen moduan. Horrela jokatzuz gero iritzia eman behar duzu eta, bere ustean, bere iritzia agertzea ez zaio bereziki garrantzitsua iruditzen. Fikziora joz, pertsonaia ezberdinekin aritu daiteke pertsonaia bakoitzari iritzi bat esleituz. Modanen *Metralla* eta *La propiedad* komikietan, esaterako, fikziozko elementuak erabilia egiara hurbiltzeko –egia txikietara, baldin bada ere– oso ahalegin ona egiten du. Erabat konektatzen du nik egin nahiko nukeenarekin. **Liburuaren aurkezpenean, euskal auziari buruz hitz egiterakoan, kazetariaren lana azpimarratu zenuen. Tokiko kazetaritzaren ikuspegitik interesgarria iruditzen zait hori.**

Bai, eta ez bakarrik kazetariengan. Baita soziologo, historialari eta antropologoengan ere. Momentu honetan, gatazkaren parterik gordinenena igarota, bortxarena nolabait esateko, kazetaritzari lerratzea eskatzen zitzaion lehen. Eta batzuetan, propaganda bide izatearena ere bai. Indarra galdu du horrek eta tokikoan ezkutuan geratu diren historia horiek azaleratzeko aukera dago. Alde guztietan egon den mina, beldurragatik isilduak izan diren gauzak ateratzeko,... halako kazetaritza



'Oharrak & Hondarrak' izeneko bloga kudeatzen du Iban Zalduak.

"IDAZLEAZ GAIN, IRAKASLEA ERE BANAIZ. HISTORIA EKONOMIKOA EMATEN DUT UNIBERTSITATEAN"

"SOLDADUTZA EGITEAZ LIBRATU NINTZEN, BAINA BORROKA HORRETAN ENGAIATU NINTZEN"

"EZ DUT LAN EGITEKO METODORIK. NAHIKO ANARKIKOA ETA INPUTSIBOA NAIZ"

lanak kasik fikziotik idazleok egin dezakeguna baino garrantzitsuagoak dira. ETaren osteko errelatoen bilduman berrikuntzarik handienak, sorpresarik handienak, hortik etorriko dira. Hau dena diot ea gerora egingo diren nobelak edo ipuinak hobeak izango ote diren galdetu izan didatelako. Eta ez dakit zer erantzun. Batzuk hobeak eta besteak txarragoak izango dira. Literatura ona eta txarra egingo da, lehen bezala. **Garai berrietan gatazka eta aldarrikapen berriak daude. Deigarria egiten zait, erraustegiaren inguruan edo feminismoan *Bizitza da handiena* leloak erabiltzen direlako. Deigarria da, orain dela ez asko horrelako lelo indartsurik ez zelako erabiltzen.**

Seguruenik, gauza solemneagoetan geundelako. Nola den utopia, sozialismoa, independentzia. Egia txiki horiek, *bizitza handia da* bezalakoak, baztertuak edo subordinatuak geratzen ziren halako helburu handien ondoan. Sufrikario hori pasa behar izan dugu egia txikia horietara iristeko. Iruditzen zait sintesi lan horretan idazle onen lana esanguratsua dela. *Bizitza handia da* horretan Atxagaren oihartzunak entzuten ditut: "*Bizitza, bizitza da, kentzen duenak kentzen du dena*". **Iragana atzean geratzen da, eta nahieran erabiltzen da. Intsumisia antimilitaristen garaipena izan zen, eta orain, badirudi ezkertiar eta abertzale askok euren garaipen moduan hartzen dutela. Gertatu izan zait lagun artean, eta deigarria egiten zait.**

Niri ere deigarria egiten zait, eta ez. Hain garaipen gutxi izan dira hemen, horri heltzea kasik normala egiten zait. Egia da hasieratik horretan ibili ginenok harritu egiten garela batzuetan, 80ko hamarkadaren bukaeran horri buruz hitz egiten hasterakoan, batzuekin eztabaidatzen hasi eta "la mili con los milis" entzun behar izaten genuen. Dudarik gabe, mugimendu antimilitaristaren eta intsumisioaren helburu nagusia armada espainiarraren kontrakoa zen. Baina nik beste parte bat ere ikusten nuen, zeharka bada ere eta borroka egiteko moduagatik, ETari kritika. Baina, esandakoa, normala iruditzen zait, oso garaipen gutxi izan ditugulako. Lemoizkoa agian, baina Lemoizkoa ere, neurri batean, zikinduta dago Jose Maria Ryanena bezalako hilketengatik, eta abar. **The Who taldearen pin ederra daramazu jantzita, Paul Weller handiarena. Denbora askoan, fusila bitan hautsita agertzen den pina eraman zenuen paparrean...** Bai, eta oraindik badaukat. Eta noizean behin ere jantzen dut. Mugimendu antimilitaristan sartuta egon nintzen, oso hurbileko jendeari kartzelara joatea egokitu zitzaion. Hor egon ginen laguntza taldeetan. Ni miopea naiz, ez dut tutik ere ikusten eta soldadutza egiteaz libratu nintzen, baina borroka horretan engaiatu nintzen. Nire bizitza militantean oso momentu inportantea izan zen. **Ipuinak, bloga, aurkezpenak... ba al daukazu lan egiteko metodori?**

Ez, nahiko anarkikoa naiz.

Baina etengabe ari zara.

Bai; lo gutxi egiten dut. Eta zahartzaroarekin, geroz eta gutxiago. Nahiko anarkikoa eta inpuitsiboa naiz. Aitatasunak erakutsi didan beste gauzetako bat da lan egiteko edozein momentu aprobetxatu behar dela. Lehen, ordenatuagoa nintzen, egun guztia nuelako horretarako. Baina momentu honetan... Beno, ari naiz lehengora itzultzen, alabak nagusiagoak baitira.

Oharrak & Hondarrak zure blogak ere zeresana eman izan du. Izen hori du, baina izan zitekeen Ziri zorrotz izenekoa. Azkena irakurri dizudana literatur ekimenen antolatzaile eta sustatzaileei buruzko dekalogoia da. Mugiroa izan du; Twitterren, bereziki.

Nire ohiko postak baino gehiago mugitu da. Euskal blogosferan *euskal* jartzen duzun momentutik kontua gehiago mugitzen dela dirudi. Kultur ekitaldien antolatzaile jator izateko zer egin behar duzun aholkatzen saiatzen nintzen post horretan. Neurri handi batean, autoaholkuak dira. Ni ere ibiltzen naizelako tarteka literatura jarduerak antolatzen. Eta orduan jo behar duzu

idazleengana, intelektualengana edo irakasleengana. Esperientzia propioagatik diot, nik ere, seguru aski, egin izan dudalako, oso lehorrak garela. Ez dakit euskaldunen lehortasunarekin zerikusia duen, edo zuzenean edukazio eta jendetasun faltarekin. Pertsonak gehiago mimatu beharko genituzkeela iruditzen zait.

Gasteizen bizi den donostiarra. Donostiara tarteka etortzen den gasteiztarra... dagoeneko nor zara?

Poetak esango lukeen moduan, ez naiz inongoa. Dagoeneko donostiarrek ez naute donostiarizat hartzen, eta gasteiztar batentzat Gasteizen jaioa izan ez bazara –eta nahiz eta nik badaramatzadan 33 urte bertan bizitzen–, ez naiz sekula izango gasteiztarra. Horrek lasaitasun pixka bat ere ematen du, azkenean nazionalismo mota batez libratzen baitzaitu. Tokiko nazionalismo horretaz libratzen zaitu eta, adibidez, festetako pregoia emateko deitua izatera libratzen zaitu. Inongoa ez izateak, alde horretatik, askatasuna ematen dizu.

Liburuaren Eguna pasa berri da. Aholkatuko al zeniguke liburu bat eta, musikazale amorratua zarela jakinda, disko bat ere?

Azken hilabete hauetan gehien hunkitu nauten bi erreferentzia ekarri ditut: batetik, *Aspernen paperak*, Henry James idazlearena (Igela argitaletxea). Sinesgaitza dirudien gertaera da, baina benetan gertatu zen. Editore bat etxe batean infiltratu egiten da, bertan bizi den emakumeak amorantea izan omen zuelako. Bertan poeta handi baten paperak egon daitezkeelakoan, horiek harrapatu nahi ditu. Venezian gertatzen da, halako agertoki erabat literarioan. Nobela motz bat da, eta tentsioa eta suspensea erabateko maisutasunarekin erabilita daude. Euskaraz asko zabaltu ez den liburua da. Joan Gartziairen itzulpena sekulakoa da.

Eta diskoa?

Elbow talde ingelesa, Britainia Handian azken bi hamarkada hauetan zabalkuntza handia izan duena. Kantariak Peter Gabrieletik nahiko hurbil legokeen ahotsa du. Rock epikoaren eremuan, batzuetan xamurtasunera jotzen duena, oso klasikoa da ikuspegi horretatik. *Little fictions* atera duten azken diskoa. Primavera Sound jaialdian deskubritu nituen, eta liluraturik utzi ninduten. Geroztik, euren disko guztiak erosi ditut. Disko honetan bada *All disco* izeneko kanta ikaragarria. Pinpirintasuna soilik musikan iruditzen zait onargarria, eta hauxe da, nire ustez, adibide horietakoa. Azkenaldi honetan gehien entzuten dudana CDetakoa da. ■■■

Kontutxo bat



ITZIAR REKALDE

IPUIN KONTALARIA

Ez naiz hauteskundeez arituko. Lotsagarria ezik, harrigarria egiten zait errealitatearekin zer ikusirik ez duten diskurtsoak nola botatzen duten ikustea. Debalde, inpunitate osoz gainera. Baina harrigarriago egiten zait oraindik zer patxadarekin jaso eta irensten ditugun herritarrok. Politikatik zein bizitzako arlo guztietatik jasotzen ditugun mezuak dimentsio paralelo batekoak direla ematen dute.

Baina ez gara kanpotik kontaktzen digutenaren menpekoak bakarrik, guk geuk geure buruari kontaktzen diogunaren ondorio ere bagara. Auto-narrazioak zer garen, non gauden eta ingurura egokitzeak zer behar dugun bideratzen laguntzen digu. Dakitenek esaten dute mundua konprenitzeko eta gure identitatea eraikitzeak istorio bat asmatzen dugula, ziurtasunezko esparrua izango duguna. Hortik aurrera, gertatzen zaiguna, sentitzen duguna, pentsatzen dugun guztia eraiki dugun kontakizun horren arabera neurtuko dugu.

Erraza litzateke idatzi dudan horri eustea bakardadean, kobazulo batean sartuta biziko bagina. Ez da gure kasua. Mezu jario etengabea gaudе murgilduta, eta adaptazioaren mesedetan identitate propioaren pertzepzioa aldatzen goaz. Geure kontakizunak talka egiten du kanpotik datozkigunekin. Ez gara eroso sentitzen. Kolokan, noraezean gaudе. Edozein aingurari eusteko arriskua dugu orduan: edozein *influencerrek*, *twitterrek*, *coachek* edo dena delakoek eskaintzen diguten ereduari eusteko prest gaudе. Baina ez gara errugabeak: euren esku uzten dugu gure borondatea eta geureak ez diren diskurtsoen bozeramaileak bihurtzen gara boterezko egituraren mesedetan; sinesten ez dugun sistemaren ezinbesteko tresnak, peoiak gara.

Kontu hau ez da berria. Idatzita zegoen gu mundu honetara heldu aurretik, baina ez gaitezen engaina, determinismoa ere gezurra da. Istorio hau ez dugu zertan errepikatu behar, ezta gutxiago ere betikotu. Benetan zer garen onartzeko gaitasuna izan eta garen moduan agertzeko ausardian jarri nahi dut erronka, hemendik aurrera geure kontakizunaren jabe izan gaitezen. ■■■

**SINESTEN EZ DUGUN
SISTEMAREN
EZINBESTEKO TRESNAK
GARA, PEOIAK GARA**



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#AndoniPescatero

Andoni es pescatero en el mercado de Barakaldo. Se levanta a las 4.30, atiende el puesto y por la tarde trabaja en otra tienda. Cierra la persiana a las diez de la noche. No se queja, no pide ayudas; solo pide ideas. Esta gente merece intentarlo". Txio honekin ireki du Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak trumoi en kutxa. Erantzun zaparrada jaso du EAJko agintariak, kolore eta forma guztietakoak. Andoni Artiz arrain saltzailea eta Rementeriararen txioaren protagonista ere lokalizatu du SER irratia, eta mikrofonoetan ukatu du laguntzak eskatzen ez dituenik. Arrain saltzailea kexu da, gainera: "Bizitzeko ari naiz". Rementeriararen ateraldiaren ondoren, Twitterreko protagonista berria sortu da: @Arraindoni_4_30. ■■■



SAMARA VELTE
@samaravelte

Andoni pescateroa eta Corte Ingleseko iragarkietako ama kexugabeak. Boterearen gustuko herritarrak.



MARIA AGIRRE
@magirre

Andoni El Pescatero etxera heltzen denerako afaria prest du emazteak. Umeak ohean aita ez molestatzeko. Etxeko lanetarako astirik ez du. Rementeriararen ipuintxoari segika...



AIERT GOENAGA
@aiertgoenaga

Andoni gizajoa... ez da ordubete Tronu dema ikusi gabe ohera sartu dela eta jada esnatzeaz dago. Ziur #UnaiElDiputauk emango dion ideia Euskaltelen pack berria kontratatzea izango dela ze #pertsonehelburu eta rollo guzti hori



ANDONI
#ARRAINSALTZAILEA
@Arraindoni_4_30

Zer nahiago dozue, arrainsaltzaile ona ala euskalduna?



ELIXABETE PANTOXA
@eliPantoxa

Andoni el Pescatero hori dun mutila inoiz kexatu gabe saltzen du kiskilla... #arsa #tronio



BAKARRIZKETAK



ANTZEZLANAK



FAMILIARRAK

EKOIZPENAK

MANAGEMENT



www.ttipia.eus

TTiPiA



Kale gorrian, etxebizitza eskubidearen alde

Gasteizko Plaza Berriko arkupeetan gaua pasatu zuten dozenaka herritarrek iragan ostiralean, etxebizitza eskubidearen alde. Kale gorrian lo eginez salatu zuten kalean lo egitera behartuta daudela pertsona asko hiriburuan, eta ez dutela jasotzen behar duten arreta zerbitzu sozialen aldetik. "Gizarte larrialdietarako zerbitzuak eta aterpetxeak gainezka daude eta udal eta foru gobernuek ez dute ezertxo ere egin azken urteetan hau konpontzeko". Bitartean, Gasteizen 10.000 etxebizitza hutsik daudela azpimarratu dute, "horietatik 500 gutxienez Udalarenak dira eta ez dakigu zenbat Elizaren eskuetan daude".

Argazkia: Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

"Inposaketan ari da Mercedes, eta ez gaude hori onartzeko prest"

IGOR GEBARA MERCEDESEKO ENPRESA-BATZORDEKO PRESIDENTEA

Azken kaleratzeen harira, mobilizazioak egingo dituzte. Ekoizpenean iragarri den jaitsierak enpleguari eragingo ez diolakoan dago Gebara.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Lanuzteak iragarri ditu Mercedes-Benzeko enpresa-batzordeak, zuzendaritzak otsailean kalera-tutako hiru langileak berrartu ditzala eskatzeko. Ez da azken hilabeteotan izan duten gatazka bakarra. Enpresa-batzordeko presidente Igor Gebarak (ELA) argi du zuzendaritzari mugak jarri behar zaizkiola, enpresak "izaera diktatoriala" duela iritzita.

Langileen asanblada egin duzue duela gutxi Buesa Arenan. Zer erabaki duzue?

Bereziki plantilla nola zegoen jakin nahi izan dugu, kontuan izanda azken 20 urteetan mobilizazio handirik egin ez duen plantilla dela. Goizez zein arratsaldeko txandetan, 800 langile inguru bildu gara. Egia da orain arte egin ditugun elkarretaratzee-tan baino jende dezente gehiagok

parte hartu duela, baina, halere, oraindik kopurua ez da nahikoa, 5.000 langile dituen enpresa batean gaudela kontuan izanda. Langileak konbentzitu behar ditugu: edo mobilizazioetara jotzen dugu edo kaleratze gehiago egon daitezke etorkizunean. Enpresak ikusten badu plantillak ez duela indar nahikorik, gureak egin du. Bestetik, batzordeari hainbat kexa egin dizkigute, iraganean gertatu diren hainbat gauza direla eta. Dena dela, horiek iraganeko kontuak dira: batzordeko partaideen %90 baino gehiagok horrelako egoerei erantzuteko erabaki bat hartu dugu, eta hortik aurrera abiatu nahi dugu ibilbide berria.

Nolakoak izan dira kaleratze horiek?

Joan den otsailean Mercedesek hiru langile finko kaleratu zituen, eta agerikoa da bidegabeko kaleratzeak izan direla. Hirurek jaso zituzten gutunak berdin-berdinak izan ziren, arlo desberdinetan lan egiten zuten arren. Aurretik kaleratze solteren bat egon da, baina lehen aldia da hiru batera kaleratzen dituztena. Bidegabeak zirela jakinda ere, enpresak esan zigun legea alde zuela nahi zuena egiteko, epaileak zehazten duen kalte-ordainketa egite soilarekin.

Zein da adostu duzuen plana?

Sei sindikatuok adostu dugu ez dugula bidegabeko kaleratzerik onartuko. Horren jarraipena egiteko batzorde bat eratu dugu, eta protokolo bat zehaztu dugu, arian-arian indartzen joango diren dinamika eta mobilizazioak jasotzen dituen. Kasu honetan, hilaren 27an izango den lehen epaiketa-rekin batera, lanuzteak deitu ditugu. Norberaren esku egongo da, noski, enpresak eskainitako kalte-ordaina onartu ala ez. Baina Mercedes oso diktatoriala da, eta kaleratzeak garesti atera behar zaizkio.

impresion arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Email: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



Mercedesi kaleratzeak garesti atera behar zaizkiola uste du Gebarak, hori plantilla osoarentzat ona izango delakoan. JUANMA GALLEGO

Kaleratze horien atzean bestelako motibaziorik ikusten al duzue?

Tentuz ibiltzeko abisua da hori. Azken urteetan Mercedesek mila bat langile finko egin ditu, eta hiru hauek multzo horretan zeuden. Behin-behinean ari direnean, langileak gogotsuago aritzen dira, baina finkoa egitean, erlaxatu egiten dira, eta borondatearen eremuan sartzen diren gauzak egiteari uko egin ahal diote. Hori normala da: sukarrarekin lanera joandako langileak ikusi ditut nik, behin-behineko egoeran zeudelako. Behin kontratu finkoa izanda, suposatzen dut baja hartuko luketela. Lan legediaren arabera, ebentuala izan ala ez, horrek ez luke eraginik izan behar; zoritxarrez, gauzak ez dira horrela.

Kaleratzeena ez da salatu duzuen egoera bakarra...

Hala da. Asanblada kaleratzeen harira deitu badugu ere, azken hilabeteotan enpresak aldebakarez egindako erabakiei aurre egin behar izan diegu. Horietako batzuk epategietan daude. Adibidez, ez da onargarria ostiral batean langileek haien norbanako oporrak

sinatzea eta hurrengo asteartean enpresak iragartzea oporrak kolektiboak izango direla. Bestetik, etxera bidaltzen gaituzte, esanez ez dela ekoiztuko, baina gero ekoizten da... nahasmen izugarria dago, eta langileak gara hori ordaintzen dugunok. Denok ulertzen dugu malgutasuna beharrezkoa dela, baina malgutasun hori ez da beti egon behar lana eta familiaren arteko bateragarritasunaren kontura. Eta sortu diren beste gatazketan, enpresa da azkenean bere irizpidea inposatzen duena. Inposaketaz inposaketa gabiltza, baina ez gaude egoera hori onartzeko prest.

Ekoizpenean murrizketak iragarri ditu Mercedesek. Beldur zarete horrek enpleguan eragingo ote duen?

Azken urteetan errekor zenbakietan gaude. Momentuz, ekoizpena gutxitzeak oporrei eragingo die: hiru hilabeteetan 300 lanpostu inguru sortu behar ziren oporraldiak ordezkatzeko. Baina, orokorrean, orain dauden zifrak ikusita, egoerak ez lioke enpleguari eragin behar. Beste kontu bat da uda eta gero zer gertatuko den.

Ibilgailu elektriko berria iragarri dute. Horrek egoera hobetuko du?

Suposatzea da baietz, baina, egia esanda, ez dakigu benetan merkatuan zer onarpen izango duen. Elektrikoen inguruan zaila izango delako daude oraindik. Enpresak askotan esan digu elektrikoak ez direla etorkizuna, ez dagoelako material nahikoa horiek ekoizteko, eta, behin iraungita, baterien kudeaketa oso zaila izango delako. Badirudi hidrogenoaren aukera hobea izango dela. Dena dela, errekontzako motorrei oraindik denbora asko geratzen zaie. Gaurko motorrek ez dute zerikusirik duela hainbat urte egiten zirenekin.

Nolakoa da instituzioen jarrera?

Niri pertsonalki huts egin didate. Mercedesen kontratu masiboak egiten hasi zirenean, lan ikuskaritzan salaketa jarri genuen eta enpresak 550 kontratu finko egin behar izan zituen. Baina iruzurra mantentzen da. Barne mailan politikari guztiek onartzen dute egoera, baina ez dira ausartzen Mercedes ukitzera. Nahi zaiona egitea onartzen zaio. ■



Ezkerretik eskumara, Tania Cañas, Tita Golindez eta Estibaliz Gomez de Segura, txostenaren aurkezpenean. MIRIAN BITERI

Etxeko langileen %40 etorkina da

Zentzuz Kontsumitu partzuegoak ikerketa bat egin du hiriko zaintza eta etxeko langileen errealitatea aztertzeko; beraien lan eskubideen urraketa "sistematikoa" dela ondorioztatu du txostenak.

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Etxeko langileen egoera eta zaintzen beharra aztertu duen *Zeinek zaintzen du eta nola Vitoria-Gasteizen? Etxeko langileen egoera Vitoria Gasteizen: hurbilketa bat* izeneko diagnosia aurkeztu du asteon Zentzuz Kontsumitu partzuegoak. Eskainitako datuen artean, azpimarratu du zaintza sektorean ari diren langileen %90 emakumeak badira ere, nagusien

egoitzen, garbiketa enpresen eta etxez etxeko zerbitzuen gerenteen gehiengoa "gizon zuriak" direla; hain justu ere, gizonezkoak dira irabaziak metatzen dituztenak.

Zentzuz Kontsumitu partzuegoa honako elkarteek osatzen dute: Setem Hego Haizea, Mugarik Gabe eta Medicus Mundi Araba. Ekimen horrek urteak daramatza kontsumo jasagarri eta eraldatzailearen alde egiten, hiru

ardatz nagusi lantzen: kontsumo arduratsua, elikadura burujabetza eta zaintzak.

Mugarik Gabeko ordezkari Estibaliz Gomez de Segura gizarte hezitzaileak azaldu du 37.243 etxeko langilek dutela izena emanda Gizarte Segurantzari, eta %37,79 migratzaileak direla. Horrekin batera, nabarmendu du 2017an, enplegatzaileen etxean lo egiten zuten langileen %16 papergabeak zirela. Gehienak Venezuela, Nikaragua eta Hondurasetik etorritakoak dira.

Legeria "bartzertzailea"

Salatu du sektore horretan "sistematikoa" dela eskubideen urraketa. Bost ardatz nagusi hartzen ditu kontuan ikerketak. Batetik, legeria "bartzertzailea": besteak beste, etxeko langileei langabezia prestazioa ukatzen zaie, zaintzen duten pertsona hiltzen denean ez dute babes juridikorik jasotzen,

soldatek ez dute kotizazio-oinarriak errespetatzen eta gaueko lanaldia ez dago araututa. "Eta, hori gutxi balitz, soldata murrizteko asmoarekin, langileak etxean bazkaltzeagatik edo garbigailua erabiltzeagatik soldataren %30 galdu dezake", esan du Gomez de Segurak.

Bigarrenik, kontratuen bidezko lan eskubideen urraketak daude; hitzarmen kolektiborik ez dagoenez, kontratuek askotan ez dituzte langileen zereginak eta ordutegia zehazten, eta, hortaz, soldata berdinagatik adostu gabeko eginkizunak eskatzen dizkiete. Hirugarrenik, Etxeko Langileen Sistema Berezian alta emanda ez daudela ondorioztatu du azterketak, dakarren babes faltarekin.

Bostetik batek, sexu jazarpena, Laugarrenik, jasaten duten indarkeria matxistak, arrazistak eta klasistak daude. Horrekin lotuta, salatu dute Euskal Autonomi Erkidegoan, etxeko langileen %22ak onartu duela lanean sexu jazarpena bizi duela, eta %45ak lan bila zebilela telefonozko dei lizunak jaso dituela. Azkenik, enplegatzailearekin duten harremana ikertu

"GARBIGAILUA ERABILTZEAGATIK SOLDATAREN %30 GALDU DEZAKE"

ESTIBALIZ GOMEZ DE SEGURA

"MUGIMENDU FEMINISTA EZINBESTEKOA DA AHALDUNTZERAKO"

TANIA CAÑAS

dute: horren abotere eta kontrol jarrerak atzeman dira.

Egoerari buelta eman behar zaiola uste dute partzuergokoek, eta horrekin lotuta, askotariko aldarrikapenak helarazi dizkie lan ikuskatzailetzari, sindikatuari, talde feministei, enplegatzaileei, etxeko langileei eta gizarteari. Legeria diskriminatzailearekin amaitu dezatela exijitzearekin batera, sindikatuari sektorearen negoziazio kolektiboa bultzatzea eta zaintzaileen aldarrikapenekin bat egin dezatela eskatu die. Tal-

de feministei, bestalde, langileen asoziazionismoa sustatzeko eta sektorearen lan baldintzak ikuskarazteko eskatu die. Langileak ahalduztzeko garaia dela ere aipatu du, sare indartsu bat sortuz.

Amaitzeko, etorkinen, zaintza eta etxeko langileen aholkulari Tania Cañasek nabarmendu du lehen aldia dela horrelako diagnosi bat egiten dela, eta, haren esanetan, "mugimendu feminista ezinbestekoa da errealitatearen kontzientziarako eta langile horien ahalduztzerako". ■

Kike Fernandez de Pinedo
Arabako Ahalduztzaileak
Nagusirako hautagaia

Miren Larrion
Gasteizko alkategia

**BOZKATU
ehbildu**

**Zurekin
ARABA gara**

"Arabian beste eredu bat posible da, eta oraindik garaiz gabilta"

IÑIGO LEZA AHT-RIK EZ ARABA

Arabako udalerrri desberdinetako taldeak batu dira larunbatean Abiadura Handiaren Kontra antolatutako manifestaziora.

E. LANAO/A. AMENABAR GASTEIZ

Tren sozialaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren kontrako manifestazioa deitu dute larunbaterako, hilaren 18rako, Gasteizen. "Dirudunentzako tren batean" miloika euro gastatzen ari direla nabarmendu dute manifestazionario deitzaileek, eta baliabide natural, turistiko eta kulturei kalte egiten diela proiektu honek. Manifestazioa deitzearen arrazoiak eman ditu Iñigo Leza AHTrik Ez Araba plataformako kideak ALEA FM saioan.

Dirudunentzako proiektua al da Abiadura Handiko Trena?

Hori esaten dute orain arte egin dituzten ikerketek behintzat, Frantzian hori jaso dute; batez ere, oso garestia izango delako. Arantxa Tapia sailburuak dio zortzi euro balioko duela hiri batetik bestera mugitzeak, baina ikusten badugu zer nolako prezioak dauden adibidez Madril eta Guadalajara artean, 70 bat kilometroko tartean, Gasteiz eta Bilbo artean bezala, 20 eta 27 euro artekoak dira.



Iñigo Leza. ENDIKA PORTILLO

Argudio asko aurkeztu dituzue proiektu horren kontra, baina zein da nagusia?

Lurraldean sortuko den zauria da nagusia, Araba osoa erditik zati-tuko duelako. Eta Arabian 2.000 milioi euro gastatu nahi izatea hain gutxi erabiliko den tren baterako... Gainera, gaur eguneko ohiko trena kaltetuko luke, beste leku batzuetan ikusi dugun moduan; betiko trenaren erabilera gutxitu egiten da nabarmen.

Zer nolako lanak aurreikusi dituzte Arabian?

Pasa den urtean hiru proiektu ezagutu genituen. Burgos eta Gasteiz artekoa lehenengoa; Mirandatik Gasteizera dauden 35 kilometro horietan hainbat udal-erri kaltetuko dituen. Lautadako bigarrena; Gasteiztik Iruñera doan lineak herri pilo bat hartuko ditu, eta kontuan izan behar da azpiegitura asko daudela zonalde horretan eta AHTa abian jartzeko mozketak pilo bat, biaduktuak eta zubi ugari egin behar direla. Hirugarrena Arabako Errioxakoa da; jendeak uste du bertan behera geratu zela alderdiak kontra agertu zirelako, baina oraindik bi aukera daude aztergai, eta horietako bat, aukera gehiago dituen merkeagoa delako, Bastida eta Zanbrana artean pasako dena da.

Gasteizen ere hainbat auzo hartuko ditu AHTak.

Aurten aurkeztu zen Gasteizko zatia, eta 14,3 kilometrotik 3,6 bakarrik joango dira lurrazpian; argi dago gasteiztarrek erabaki behar dutela lurrazpian joan behar duen ala ez, baina, gauzak horrela, beste kilometro guztietan eraginak nahiko handiak izango dira. **Alegazioak jaso dituzue. Lautadan, esate baterako, milaka...**

Ez genuen denbora asko izan. Hilabete bakar bat genuen, eta hogeiegunetan 7.000 jaso genituen. Sustapen ministeriotik onartu dituzte eta aztertzen ari dira... Alde horretatik, kontent gaude atzeratu dugulako pixkat proiektu hau, trabak jarri dizkiogu, eta kontra egiteko denbora pixka bat irabazi dugu. Jasotako kexa nagusiak zama ekonomikoaren ingurukoak, ingurugiro gaitako kexak, elikadura burujabetza gaitakoak edota ondareari dagozkionak izan dira. Burgu ondoan, esate baterako,



Martxoan Altsasun egin zuten manifestazioa tren sozialaren alde eta AHTaren kontra. GUAIXE

baseliza bat bota behar dute tren lasterra eramateko.

Hauteskunde kanpainan gaiak oihartzuna izatea nahi duzue?

Bai, garrantzitsua da, gure ustez eztabaida sortzea. Eta espero dugu hurrengo lau urteetan ere gai hau zentrala izatea, eta horregatik alderdi politikoek ahalik eta konpromiso handiena eskatzen ari gara, udaletako mozioen bitartez, besteak beste. Larunbat honetarako, gainera, dozenaka atxikimendu jaso ditugu; talde ekologistek, feministek, pentsionistek, Gasteizko auzo elkarteek eta sindikatuek—ELA, LAB, ESK, STEILAS, UAGA— bat egin dute, besteak beste.

Manifestazioarekin batera, hainbat ekitaldi prestatu dituzue hilaren 18rako.

Manifestazioa 12:30ean abiatuko da San Anton plazatik. Eta, ho-

"ALDERDI POLITIKOEN AHALIK ETA KONPROMISO HANDIENA ESKATZEN ARI GARA"

rrekin batera, hainbat kontzertu, zirkoa, ipuin kontalariak eta bazkari herrikoia izango dira Auzolana pilotalekuan.

AHTa moduko proiektu handi batek atzera bueltarik dauka?

Baietz uste dugu, eta orain da momentua. Obrak hasten direnean askoz zailagoa da proiektu hauek gelditzea, Euskal Y-arekin ikusi dugun moduan; obrak hasitakoan mugimendua asko apaldu zen. Gogoratu nahiko nuke Iparraldeko kasua, hor nahiz eta ardatz batean egon Paris-Madril linea,

gelditzea lortu dute, eta Frantziako gobernuak pasa den urtean esan zuen ez zuela azpiegitura berririk egiteko asmorik. Uste dugu garaiz gabiltzala eta garrantzitsua iruditzen zaigu larunbateko manifestazioan jende asko egotea, hau gelditzeko aukera gehiago izateko.

Europako Parlamentuan izan zineten urte hasieran. Zer ekarri zenuten handik?

Aurretik genuen susmoa konfirmatu genuen han. Europako Kontu Auzitegiak txosten batean esaten du hobe dela egungo azpiegiturak hobetzea berriak egitea baino, eta Espainian egiten ari dena txapuza bat dela; Espainia da biztanleko AHT kilometro gehien duena; ikusi duguna da ez dagoela irizpide sozial edo ekonomikorik abian jarri den proiektuarekin. ■

ESANAK



PABLO LASO
REAL MADRILEKO ENTRENATZAILEA

"Taldea sendo ikusten dut Gasteizen jokatzeko; mailari eutsi behar diogu"



ISMAEL GARCIA-GOMEZ
GPAC TALDEKO ARKEOLOGOA

"Ondareari buruzko lege berriari esker, gure ondareak babes gehiago izango du"



ANE ZELAIA
11/13 SUMARIOAN AUZIPETUA

"Epaiketa guztiz anakronikoa da, lekuz kanpo dago, eta hala harrapatu gaitu gu ere"

ZENBAKITAN

Urteak

30

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako zikloetako Arabako ikasleek dirulaguntza bat jasoko dute, 2018/19 ikasturtean euren udalerritik beste udalerriri batera joan-etorriak egin baldin badituzte. Horren bidez ikasleak egoitzaz ez aldatzea eta bizi diren herrian geratzea lortu nahi dute, Aldunditik azaldu dutenez. Baldintzen artean, 30 urte baino gutxiago izatea, Araban erroldatuta egotea, ikasketaren batean matrikulatuta egotea eta eskatzailearen ohiko egoitza eta ikasketxea udalerriri berean ez egotea nabarmendu dituzte. Guztira, 130.000 euro banatuko dituzte ikasleen artean.

25

Urteak

Gorbeiako parke naturalak 25 urte bete dituela ospatzeko, azoka handi bat eta hamaika jarduera prestatu dituzte hilaren 19rako, Ondategin. Jardueren artean, besteak beste, parke naturalako larreetan ibiltzen diren arraza autoktonoetako 170 zaldi, behi, ardi eta ahuntz baino gehiagoren abere erakusketa, ekoizleen eta artisauen azoka, multiabentura (tirolina eta rokodromoa) eta Gorbeiako parke naturalari buruzko animazioko film labur bat ikusi ahal izango dira.

211

Tonak

Arabako Errioxan 211 tona plastikozko ontzi bildu zituzten joan den urtean, eta, horien kopurua murrizteko asmoz, kanpaina bat jarri dute abian. Plastikozko botilak alde batera uzteko, metalezko 1.500 ontzi banatu ditu Arabako Errioxako Kuadrillak. Era berean, zonaldeko uraren "kalitatea" nabarmendu dute, eta hori kontsumitzeko deia egin nahi dute kanpainarekin. Besteak beste, Oiongo ikastolak eta eskolak bat egin dute ekimenarekin.

Hil egin da Gasteizen lapurreta batean zauritutako emakumea

Igande arratsaldean lapurreta batean larri zauritutako emakumea hil egin zen asteartean, Santiago ospitalean. Kasua argitu ahal izateko, Ertzaintzak laguntza eskatu die herritarrei; Aranbizkarra auzoan gertatu zen eraso, emakumearen etxeko atarian. Gertatutakoa salatze hainbat elkarretaratze izan ziren hiriburuan asteazkenean.



Asteazken goizeko elkarretaratzea. BNARABA

LGTBI-fobiaren aurkako behatokia abiarazteko hitzarmena sinatu dute

Gasteizko Udalak eta Lumagorri elkarteak hitzarmena sinatu dute, LGTBI-fobiaren aurkako behatokia abiarazteko. Udalak 30.000 euro emango dizkio proiektuari, eta aurrerago baita lokal bat ere, topagune bat, LGTBI pertsonen zuzenduriko bazterkeriazko eta indarkeria matxistazko egoerak atzeman eta horiei aurre egin ahal izateko.

Baldintza hobeak eskatzeko, greba osasun zentroetan

Arabako osasun zentroek beste greba egun bat izango dute ostiral honetan, arreta eta lan baldintzak hobetu daitezkeen eskatzeko. Besteak beste, salatu dute pazienteak behar bezala artatzeko denborarik ez dutela, burokrazia gehiegizkoak jarduna eragozten diela eta gaixo diren langileak edo oporraldietan daudenak ez dituztela ordezkatzeko. Azken hilabeteetan egiten duten bigarrena da.

Lapuebla de Labarcan ospatuko dute aurtengo Mintza Eguna

Ekainaren 1ean ospatuko dute aurtengo Mintza Eguna, Lapuebla de Labarcan, Euskaltzaleon Topagunearen eskutik. Euskal Herriko mintzalagunen festa nagusia, 11:30etik aurrera, besteak beste, ardo eta olio dastatze saioak, ibilbide gidatua, kantu poteoa, bazkaria eta erromeria izango dituzte. Euskaltzale guztiei egin diete bertan parte hartzeko deia.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
—
2019

Learning from reality

[Iaz garraio sistema pneumatiko bat eta auto elektriko bat eraiki genituen.]

Mikel Atxega Sarasua
Orlo. Prozesu Industrialetako
Ekoteknologiaren Ingeniaritza. 2.maila.

INGENIARITZAK

ORONA IDEO MAIATZAK 18
LARUNBATA 10:30

ARRASATE MAIATZAK 23
OSTEGUNA 17:30

GOIERRI EKAINAK 1*
LARUNBATA 10:30

* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia

Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

Musika eskolen jaia Dulantzín

Euskal Herriko 47 musika eskolaren jaia maiatzaren 18an ospatuko da, 25. urteurrena bete duen Xabín Salaberri Musika Eskolak antolatuta. 'Alegría vivace. Tutti Dulantzín' lelopean joango da ospakizuna.

E.UGARTE LZ. DE ARKAUTE DULANTZÍ

Maiatzaren 18an izango da Musikaldi, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 46 eskolatako 2.400 ikasle bilduko dira Dulantzín, musika eskoletan egiten duten lana gizarteari erakusteko helburuarekin.

Musikaldi Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek (EHME) bi urtez behin antolatzen duen jaia da, elkarteak osatzen duten ikasleen zein irakasleen arteko topaketa. Aurten, Dulantzíko Xabín Salaberri Musika Eskola arduratu da jaia antolatzeaz, izan ere, 25 urte bete dira eskola martxan jarri zutenetik, eta efemeridea ospatzeko hainbat jarduera antolatzen ari dira urte honetan. *Alegría vivace. Tutti Dulantzín* leloa aukeratu dute aurtengo edizioan.

Ez da lehenbizikoa aldia Araban ospatzen dutela jaia, baina estreinakoz egingo da landa inguru batean. Musikaldi Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Diputazioaren eta Dulantzíko Udalaren babesarekin antolatuta dute Xabín Salaberri eskolako lagunek, eta herriko zazpi



Musikaldi jaialdiaren aurreko edizio bat. EHME

eszenatokitan eta kaleetan egingo da.

Egitaraua prest dute

Jarduna 10:00etan hasiko da, Herriko Plazan antolatu den inaugurazio ekitaldiarekin. Bertan, Maravillas Diaz EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea eta Adierazpen Musikalaren Didaktikaren irakaslea EHME 2019ko ohorezko bazkide

izendatuko dute. 10:30ean Musikaldiko *Abian da Festa* abestia aurkeztuko dute, eta jarraian, 11:00etan, hasiko dira kontzertuak.

Auditoriuma ganbera-musikaren txokoa izango da; Herriko plaza musika herrikoiak eta dantzek hartuko dute; elizan izango dira abesbatzak; Martxoak 8 plazan konboak eta rock musika; Solandia parkean bandak; eta Torrondoa kalean orkestrak eta konboak. Halaber, kalejirak egingo dira herriko kaleetan zehar arratsaldera arte.

Agur berezia

Nobedade bat ekarriko du gainera Dulantzíko Musikaldiren ospakizunak, inaugurazio ekitaldian estreinatuko baita Jose Luis Cantabrana Dulantzíko musika eskolako zuzendari pedagogikoak egin duen agurraren moldaketa, hari eta txistu hirukotearentzat. Lautadako musika eskoletako irakasleek joko dute pieza, eta Gasteizko Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioko ikasleek dantzatuko dute. ■



Parral

taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276493 GASTEIZ-ARABAKI

Gerturatzen ari da Kaldearte

Ekainaren 7tik 9ra izango da Kaldearte kaleko arteen nazioarteko erakustaldiaren XIV. edizioa. 70 emanaldi prestatu dituzte jaialdian parte hartuko duten 38 konpainiek. Haur, gazte zein helduentzako tokia egongo da.

ERREDAKZIOA

Arte eszenikoen hitzordu klasikoa bihurtu da dagoeneko Kaldearte jaialdia, eta urtez urtez errotzen doa gainera. XIV. edizioa iritsi da aurten kaleko arteen erakustaldia.

Zabaltasuna du ezaugarriarik nabarmenena: arraroa litzateke norbaitek gustuko ez duen zerbait ez aurkitzea egitarauan. Zirkua, umorea, akrobaziak... barrerako zein hausnarketa sakonetarako tartea egongo da. Bai txikienei zein helduei begira prestatu dituzte antzezlanak eta bestelako erakustaldiak. Proposamen horiek guztiek giro berezia sortzen dute Gasteizko kaleetan; karrikak taula bihurtzen direnekoa, hain zuzen.

Urteroko hitzorduari jarraiki, ekaineko bigarren asteburuarekin batera dator hitzordua: 7tik 9ra, hain justu. Ohiko prestaketaz gain, zeregin bereziak hasi dituzte dagoeneko. Adibidez, Teatro del Silencio konpainia txiletarra *Rumbo al cementerio* izeneko emanaldian parte-hartzeko boluntarioen bila ibili da. 40 izango dira aktore lanetan ibiliko diren arabarrak. El Campillo kiroldegian arituko dira entseguetan. Zehazki zertan arituko diren argitu ez badute ere, "sasoian" egoteko eta 16 urte baino gehiago edukitzeko eskatu dute. Ikuskizun jendetsu horrek



Ekainaren 7an hasiko da Kaldearte. G.U.

erakustaldiaren inauguraziotzat erabiliko dute antolatzaileek.

35 konpainiek osatzen dute aurtengo kartela, iaz baino hiru gutxiago. Horietatik zazpi Gasteizko taldeak dira, eta Euskal Herriko hainbat txokotatik beste 10 talde etorriko dira. Gainerako taldeak Euskal Herri kanpokoak dira.

Egitarauan konpainia gutxiago dauden arren, emanaldien kopurua, aldiz, mantendu da. Iaz bezala, 70 emanaldi egingo dituzte.

Ohiturari jarraiki, estreinaldi batzuk egongo dira: horietatik bi erabateko estreinaldiak izango dira. Aurten, gainera, orain arte erabili ez diren espazioak baliatuko direla iragarri du Udalak: Lanbideen Udal Lantegi-Eskola, Musikaren ibilbidea eta landa-inguruneak hirugarren espazio bat.

Ekainaren 1etik aurrera postu bat jarriko dute Urrezko Zeledonon plazan, ikuskizunei iruzko liburuxka eskaintzeko. Ohiz kanpoko esparruetan izango diren ikuskizunetako sarrerak, aldiz, saltoki handi ezagun batean banatuko dituzte, maiatzaren 6tik aurrera. ■

Udaberria
euskarategia

- Helduak eta gazteak
- C2 on line
- IVA Peko azterketarako
- Jardun bikoak
- Azterketa ofizialak
- On line ikastaroak

Euskara bertatik bertara!

40 urte!

www.udaberria.eus

Euskaltelen
onena

ERDI-PREZIOAN
BAINO MERKEAGO

19'9€
/hil
6 hilabetez

Zatoz Euskaltelera



120
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



PREMIUM
TB_a
4KDEKOArekin



FINKOA
DEI
MUGAGABEAK

www.euskaltel.eus | Dendak | 1717



euskaltel

Zatoz zuntzera 2019/5/31 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau, kontratazio-egunetik zenbatzen hasita. Iraupen-konpromisoa: 12 hilabete. Gero, prezioa 72 €/hil izango da. BEZa sartuta dago prezioan. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



'Vitoria, 3 de marzo'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Film historikoen exotismoa erakargarria izaten da garaiko jantziek, eraikuntzek, garraiobideek, tresnek eta girotzea sortzen duten osagaiek denboran (eta espazioan) bidaia labur bat egin dugula adierazten digutelako. Hala ere, film historikoak interesgarriagoak iruditzen zaizkit osagai horien guztien urruntasuna itxurazkoa bakarrik denean, eta gure egunerokotasunarekin bat egiten badute.

Adibidez, Sergei Eisenstein handiak Errusiako Ivan Izugarriari buruz trilogia bat prestatu zuenean 40ko hamarkadan (*Ivan Grozniy*); hirugarren filma ezin izan zuen inoiz gauzatu, garaiko sobietar gobernuak jadanik bigarren zatian tsarraren tiraniak Stalinekin antz handiegia zuela ikusi baitzuen. Denboran hurbilduz, eredu ona izan daiteke 2002an Paul Greengrass zuzendariaren *Bloody Sunday* ere, gure kritikan hizpide dugun *Vitoria, 3 de marzo* filman aintzat izan duten lana.

Dirudienez, ikusleen erantzuna (gurean behintzat) gogotsua izan da, saio askotarako txartelak agortu baitira. Hasieratik aipatzen ari naizen generoan sartuko litzateke publizitatean eta telebistan eskarmentu handiko Victor Cabacoren lehen filma, 1976ko martxoaren 3an



VITORIA, 3 DE MARZO'

Gasteizen jazotako sarraskia baitu gai nagusi. Nahiz eta asmatutako fikzioaz baliatzen den, filmak gertakizun horiek ditu benetako protagonista. Egia esateko, sortu duten istorioak ildo narratiboan jarraipena izateko, ez da gertakizun lazgarrien maila dramatiko eta tragikora iristen. Horregatik, film historiko ugaritan ohikoa den akatsetariko bat dauka *Vitoria, 3 de marzo* lanak, sortutako fikzioaren potentzia eskasa, eta

**ALDE DIDAKTIKOA
NABARMENDU BEHAR
DA; BELAUNALDI
GAZTEENTZAKO FILMA
ERE BADA**

protagonistentzako eraiki den egitura melodramatikoak ez duela zirrara askorik egiten.

Egiazko gertakariak irudikatzen direnean (benetako grabazioak entzuten diren bitartean), ikuslea hunkitzen da, batez ere sarraskian jazotakoaren emaitza badakigulako. Trantsizioaren emaitzak estalgabetzen dira garaiko benetako gertaerak ahotara ekartzen direnean, eta horregatik hau bezalako filmak beharrezkoak dira, oroimen historikoa orainaldira ozenki ekartzen digutelako. *Vitoria, 3 de marzo* filman gehien nabarmendu dezakeguna bere alde didaktikoa da. Gure historia irakasten (eta erakusten) digu.

Askok jakingo dute zer gertatu zen orduan, eta askok zuzenean biziko zuten. Haientzako filma da. Baina belaunaldi gazteentzako lana ere bada, askotan ahazten baitugu liburuetan ikasi dugun historiak ez duela benetakotasunik, inprimatutako irudi eta testuak besterik ez direlako. Zinemak errealitatearekin duen lotura estuak historia haragitu dezake, eta horrek bihotzetara iristea eta kontzientziak mugitzera ere eraman gaitzake. ■

zinea

Gaztelupeko hotsak

GURE BAZTERRAK



Gebara

Kuadrilla: Lautada.

Udalerria: Barrundia.

Biztanleak: 73 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Albert Jouvin kartografoak eta Aulnoyko kondesak jaso zutenez, Gebarako gazteluan iratxo gaizto bat bizi da.

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE
ARGAZKIAK: PHOT.OK

Arabara eta Gipuzkoara doazen bideen gurutze estrategikoan kokatuta dago Gebara, Zadorra ibaiaren ertzean eta Aldaiako mendiaren magalean. Duela urte batzuk berreskuratu zuten XV. mendean Gasteizera heltzeko, eta Aguraingo hiribildutik zetorren Donejakue bidea ordezkatzeko ere Postaren Errege-bidea erabiltzen hasi ziren; eta egun, Arabako ibilbide laburreko sareari atxikita dago eta erabat balizatuta. Hortaz, buelta polita egin daiteke, oinez, Barrundia udalerrir ezkutuan, eta, bide batez, 2016. urtean izendatu zuten Aldaia-ko artadiak ezagutu.

Postaren Errege-bidearen ezinbesteko geraldia dago herritik hirurehun bat metro iparraldera. Bertan, Gebarako gaztelua kokatuta dagoen hegoaldeko muinoaren hegalean, gebaratarren jauregiaren aztarnak daude. Egun, dorre ba-

kar bat eta beste biren hormak geratzen dira zutik, baita antzina dorreak lotzen zituzten eraikuntzen horma batzuk ere. Bertatik Zadorrako urtegien eta Lautadako bista ederrak gozatu daitezke, eta Euskal Herriko historiaren parte garrantzitsua ezagutu.

Mende luzez gotorleku hau Ekialdeko Lautadako jauntxoaren etxea

izan zen, gebaratarren leinuarena hain zuzen ere. Leinuak herriaren izenetik hartu zuten deitura, XIII. mendearen hasieran. Gebaratarrak Arriagako Kofradiako kide izan ziren desegin zen arte (1332), eta buru-belarri parte hartu zuten XIV. eta XV. mendeetan Euskal Herrian gertatu ziren leinuen arteko gatazketan.

Arabaren haiek ziren ganboarren buru, eta alde zituzten leinuekin batera, (Larrintzar, Lazarraga, Lezea...) Arabako Lautadako ekialdea ez ezik, Nafarroarako eta Gipuzkoarako bideak ere kontrolatzen zituzten.

1964. urtean lehen- goratu zuen Arabako Foru Aldundiak gebaratarren jauregia, izan ere Lehen Gerra Karlistan, 1839. urtean, 288 arroba bolboraz eraitsi egin zituzten XI. mendeko gaztelua eta XV. mendeko jauregia. Zurbano jeneral liberalak, urtebete lehenago, su eman zion herriari, karlisten alde agertzeagatik.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

Gorbeia zinemarako sarrerak (2019ko maiatza):

Amaia Ruiz de Azua eta Maialen Fernandez de Pinedo Unanue.

Joseba Irazoki eta Lagunak + Elh Malicken kontzertua:

Susana Dominguez eta Marina Aguayo Angulo.



ALEA produktu sorta

ALEAk lau material sorta zozkatuko ditu, haurrentzako ALEAren kamiseta, bisera eta telazko poltsa batez osatutakoa. Hau irabazteko, eman izena maiatzaren 28a baino lehen.



Florida zinemarako bi sarrerak bikoitz

Florida zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Parte hartu maiatzaren 21a baino lehen.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

M Mendia Optika

150 urte
zure ondoan

www.mendiaoptika.eus

AGENDA

Maiatzaren 17tik 23ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Deus Ez

Dientes de Luna eta Samoah taldeekin batera.

Ostirala 17, 22:00etan, Burubio aretoan.

GASTEIZ Eneritz Furiyak

GEU elkartearen eskutik.

Asteartea 21, 20:30ean, Parral tabernan.

GASTEIZ Jabier Muguruza

Poetak Maiatzean jaialdiaren barruan, disko berria aurkeztuko du Ander Mujikarekin batera.

Osteguna 23, 19:00etan, Falerinan.

GASTEIZ Joseba Irazoki eta lagunak

Elh Malick-ekin batera.

Osteguna 23, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

BERTSOLARITZA

GASTEIZ Poetak Maiatzean

Bertsolariak eta poetak. Aroa Arrizubieta, Andoni Egaña eta Asier Otamendi bertsolariekin.

Asteartea 21, 19:00etan, Dendaraba antzokian.

HAURRAK

GASTEIZ 'Hiru lumak'

Txotxongilo saioa, Rosa Martinezen eskutik.

Larunbata 18, 11:00etan, Lakuako gizarte etxean.



ARGIA

GASTEIZ Bertsolamintza

Bertsolamintza zikloaren barruan, bi hitzaldi izango dira Gasteizen.

'Feminismoa eta bertsogintza, gai-jartzailearen talaiatik' eskainiko du Maite Berriozabalek, eta 'Nola sortzen da bertsogintzari buruzko iritzi publikoa?' Xabier Aierdik.

Osteguna 23, 18:30ean, Amaia zentroan.

GASTEIZ 'Animalien biltzarra'

Maidar Alzelai ipuin kontalariaren eskutik.

Asteartea 21, 18:00etan, Abetxukuko gizarte etxean.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Fake news'-ak

Fake news; ez dira atzo goizekoak liburuan politikan gezurraren erabilera aztertu du Fito Rodriguezek, eta horren aurkezpena egingo du.

Asteazkena 22, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Zer hartu ontzitik itsasoa harri bihurtzen bada'

Gazte Sortzaileak programaren lan irabazleen aurkezpena. Miren Narbaiza eta Joseba Baleztenarekin. Emanaldi multidiziplinarra.

Larunbata 18, 18:00etan, Aldabe gizarte etxean.

Jimmy jazz gasteiz

MAIATZA

Ot. 23 JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK + ELH MALICK

Os. 24 NON SERVIMUM + ARKADA SOCIAL

Lr. 25 TAIWAN MC + JUANTXO ARAKAMA + MORO + SISTA KATA + DJ LORO & SELEKTAH STEPI

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

MINTZA EGUNA 2019

EKAINAREN 1EAN, LAPUEBLA DE LABARKAN



11:30 Ongi etorria eta hamaiketakoa herriko plazan

12:00 Bi proposamen aukeran:

- Ardo eta olio dastaketa
- La Puebla de Labarka ezagutuz ibilbide gidatua.
(bi ekintzak egiteko aukera egongo da)

13:30 Kalejira animatua eta poteoa. Herriko plazatik hasita.

15:00 Bazkaria. Ikastolan

Txartelak salgai maiatzaren 24a arte www.mintzalaguna.eus webgunean.
Menuei eta prezioei buruzko informazioa bertan.

17:00 Esker emate ekitaldia. Ikastolan.

17:30 Erromeria. Ikastolan.

 **mintzalaguna**

Antolatzaileak



Babeslea



Laguntzaileak





GERTU

ARABA EUSKARAZ 2019

Ekainak 16 · GASTEIZ



Armentia
IKASTOLA



ikastolenekartea